

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2017ko OTSAILAREN 9an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2017ko otsailaren 9an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta
Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2017ko urtarrilaren 12an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 12 de enero de 2017.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2017 Ekitaldirako Udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespina ematea, hala bada./ Aprobación inicial del expediente del presupuesto general del Ayuntamiento para el ejercicio 2017.**
- 4. Larraul, Ernio Larraul, mendi lasterketaren 2016 urteko diru-laguntzaren kitapena eta 2017 urterako diru-laguntzaren eskaeraren azterketa, hala bada/ Solicitud de ayuda económica para la carrera de montaña Larraul, Ernio, Larraul del ejercicio 2017 y aprobación de la liquidación de la ayuda económica del 2016.**
- 5. Larraulgo Gure Ametsa 12-A etxearen ganbaran hainbat lan egiteko obra baimena eskaera, M.A./ Solicitud de licencia de obra para realizar obras en el desván de la casa Gure Ametsa 12-A de Larraul, M.A.**
- 6. Tolosaldeko Hiltegi mankomunitateari 2017 urteari dagokion ekarpenaren onespina, hala bada./ Aprobación de la aportación**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- económica correspondiente al ejercicio 2017 a Tolosako Hiltegi Mankomunatuari.
7. XIII. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriala”-ri 2016 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada./Aprobación de la liquidación de la ayuda económica correspondiente a XIII. Aiztondo klasikoa” Patxi Alkorta memoriala”.
 8. XIV. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriala”-ri 2017 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada./Ayuda económica correspondiente a XIV. Aiztondo klasikoa” Patxi Alkorta memoriala”.
 9. Larraulgo Ekomuseoaren 2016eko memoriaren onespina, hala bada/Aprobación de la memoria del ejercicio 2016 de Larraulgo Ekomuseoa .
 10. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2017 urteari dagokion 1. Eta 2. Hiruhileko ekarpena burutzea, hala bada./ Aportación económica correspondiente al 1. Y 2. Trimestre del ejercicio 2017 a Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari.
 11. Larraulgo Parke zaharraren aldamenen dagoen aparkalekuaren alokairu kontratuaren onespina, hala bada/Aprobación del contrato de alquiler del aparcamiento situado junto al Larraulgo Parke Zaharra.
 12. Udal zinegotzien bizitza aseguroen esleipena, hala bada /Adjudicación del seguro de vida de los concejales.
 13. Larraulgo Udaletxeko kaldera aldatzeko aurrekontuaren onespina, hala bada/ Aprobación de presupuesto para cambiar la caldera en el Ayuntamiento de Larraul.
 14. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
 15. Beste batzuk/Otros.
 16. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.
16.1.Larraulgo Herritarrak udal taldeak aurkezturiko mozioaren “ Tolosaldeko Giltzarria” onespina, hala bada/Aprobación de la moción presentada por Larraulgo Herritarrak “ Tolosaldeko Giltzarria”.

LEHENENGO PUNTUA


ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2017 urteko urtarrilaren 12ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

02/2017 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 27koa, Eba Erkizia Brion Udal Arkitektoak prestaturiko Larraulgo Udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasunen baldintzen hobetzea izeneko proiektua onestea, ebazten duena.

03/2017 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 2koa, 2016ko 4.hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2017 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2017 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Larraulgo Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.


Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2017ko otsailaren 2an egindako txostenean dioena.

Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuak aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Larraulgo Udaleko 2017 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea 367.537,50 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

SARRERAK	367.537,50€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Zuzeneko Zergak	45.600,00




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2. Kap. Zeharkako Zergak	7.205,00
3. Kap. Tasak eta bestelako zergak	39.663,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	230.978,00
5. Kap. Ondare Sarrerak	3.600,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak besterengan.	0,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	40.491,50
8. Kap. Finantza aktikoak	0,00
9. Kap. Finantza Pasiboak	0,00

GASTUAK	367.537,50€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Pertsonal gastuak	45.600,00
2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz.	7.205,00
3. Kap. Finantza gastuak	39.663,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	230.978,00
	3.600,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak	0,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	40.491,50
8. Kap. Finantza aktikoak	0,00
9. Kap. Finantza pasiboak	0,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- 2017ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtsio eta alegazioak tartertzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

LAUGARRENA.- Idazkari-kontuhartzaileak 2017ko otsailaren 2an egindako egonkortasun txostenean adierazitakoa onestea, non azaltzen den:

Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan Ogasun eta Finantza Departamenduak argitaratutako jarraibideak (2016ko azaroaren 15ekoa) dioena aplikatuz:

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzendukok dela bermatuko duena.


Era berean, entitate batek gastuaren araua bete ez badu, baina 1/2013 Foru Arauaren 5.artikuluaren laugarren paragrafoan jasotako baldintza guztiak, aldi berean, betetzen baditu, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu, paragrafo horrek aurreikusten duen komunikazioa aurkeztu diezaiolke Udalbatzari.

Era berean, gastuaren araua bete ez duten entitateek, planaren ordeztu, komunikazio bat aurkeztu diezaiokete Udalbatzarrari, Kontu hartzaileak sinatua, entitatearen iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- *2016ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.*
- *2017erako defizit eta zor helburuak betetzea.*

Gauzak horrela, aurretik esandakoa betetzearren komunikazioa aurkezten zaio Udalbatzarrari adieraziz:

- *2016ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak direla.*
- *2017rako defizit eta zor helburuak betetzen direla.*



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Eta argi eta garbi ikusten da Aurrekontu espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAUL, ERNIO LARRAUL, MENDI LASTERKETAREN 2016 URTEKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ETA 2017 URTERAKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik, 2016ko otsailaren 11an eginiko Udalbatzarrean, Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2016 urteko aurrekontuetan aurreikusita zegoenez, 600 euroko diru-laguntza ematea erabaki zuela Larraulgo Udalak.

Kontutan hartuta diru-laguntza eman ondoren baldintza bat jarri zela, hau da, 2016eko kontuen kitapena eta memoria bat aurkeztu beharko zituela.

Ikusirik, A.A.J. jaunak Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren 2016ko kontuen kitapena aurkeztu duela Larraulgo Udalean.

Ikusirik A.A.J. jaunak, 2017 ko martxoaren 19an egingo den Larraul, Ernio, Larraul mendi lasterketarako hainbat eskaera egiten dituela, ondorengoak direlarik:

- Diru-laguntza eskaera
- Larraulgo Udalaren laguntza eskatzen duela, Asteasuko Udaletik materialen eskaera egiteko
- DYA zerbitzua egun horretan lasterketan egoteko beharrezkoak diren izapideak egiten laguntzeko eskaera.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoak

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: A.A.J. jaunak aurkezturiko Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren 2016ko kontuen kitapena onestea baldintzarik diru-laguntzaren onespenean eskatzen zen **MEMORIA** aurkeztu beharko duelarik.

BIGARRENGOA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2017 urteko aurrekontuetan aurreikusita dagoenez 422.340.00.01 partidan, 600 euroko diru-laguntza ematea. 2017 urtean emandako diru-laguntzaren zuritzea onesteko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituelarik Larraulgo Udaletxean:

- Gastu eta sarreren erlazioa.**
- Gastuen frogagiriak, hau da, fakturak**
- Memoria bat**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENGOA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketan, DYA egun horretan lasterketan egoteko dagokion izapideak egitea eta Asteasuko udalari lasterketan erabiliko den materialaren eskaera egitea, onesten da.

LAUGARRENGOA: A.A. jaunari jakinarazi, Larraulgo Udalean aurkeztu beharko dituela, diru-laguntza jaso aurretik, ondorengo erantzukizunpeko egiaztagiriak:

-Federazioak, mendi lasterketa hau burutzeko jarritako baldintza guztiak betetzen dituen.

-Gizarte Segurantzarekiko betebeharreran eta Gizarte Ogasuneko betebeharreran egunera dagoela.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri A.A.J. jaunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAULGO GURE AMETSA 12-A ETXEAREN GANBARAN HAINBAT LAN EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, M.A.

Ikusirik M.A. andreak eginiko eskaera, non Larraulgo Gure Ametsa 12-A etxearen ganbaran, komun bat eta bi logela, trasteleku bat eta espazio ireki bat moldatzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak, 2017ko otsailaren 1ean eginiko txostenean dioena:


“LARRAULGO GURE AMETSA 12-A ETXEAREN GANBARAN, KOMUN BAT, BI LOGELA, TRASTELEKU BAT ETA ESPAZIO IREKI BAT MOLDATZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

M.A. andreak, Gure Ametsa 12-A etxearen ganbaran komun bat, trastelekua, espazio ireki bat eta bi logela moldatzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontua eta hiru plano aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako eskarian, gaur egun barne banaketarik gabe dagoen ganbaran, hobekuntza lanak egin nahi direla esaten da, planoetan azaltzen diren paretak eta atek jarriz. Lan hauen aurrekontua BEZ-a gabe 10.088,25€-koa izango litzateke.

Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, hirigintza-diziplinaren arautegiaren lehenengo artikuluan azaltzen diren ekintzak, udal lizentzia behar dute. Lehenengo artikulua horretan, eraikinen barruko antolaketa aldatzen duten lanak sartzen dira.

Gure Ametsa 12-A etxea, Larraulgo lur hiritargarran kokaturik dago, bereziki A.I.U.1 kontsolidatutako kaskoan. Proposatzen diren lanak barne distribuziokoak dira bakarrik



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

eta ez dute hirigintzako aprobetxamendurik aldatzen. 1,80m altuera azpitik dauden espazioek ez dute konputatzen.

Sortzen diren barne-espazio berri hauek Larraulgo araudiak ezarritako bizigarritasun baldintzak bete behar dituzte, kasu honetan, bereziki, Larraulgo Arau subsidiarioen Lur hiritargarriko 34º artikulua dioena;

“- Iluminación y ventilación de las piezas habitables.

Todas las piezas habitables de las viviendas tendrán iluminación y ventilación natural por medio de una o más ventanas abiertas en fachada.

La superficie de iluminación de las piezas habitables no será inferior a un décimo de la superficie de su planta.

La superficie de ventilación se podrá reducir hasta un tercio de la iluminación.

Los cuartos de baño podrán ventilarse mediante conductos de ventilación individuales con una superficie libre de 150 cm². Caso de disponer de rejilla en el arranque del conducto de ventilación se garantizará una abertura mínima permanente de 100 cm².

No se permitirá la iluminación ni ventilación mediante huecos construidos en la cubierta, a excepción de aquellos huecos de acceso al tejado “.

Hau honela izanik, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.A. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Gure Ametsa 12-A Etxearen ganbaran, komun bat, bi logela, trasteleku bat eta espazio ireki bat moldatzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.


BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO HILTEGI MANKOMUNITATEARI 2017 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak 2016ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, aho batez erabaki zutela, Mankomunitateko kide diren Udalek



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

erakundearen langilearen soldata eta auditoria ordaindu ahal izateko, 2017urtean 51.001,00 eurotako ekarpena egin behar zutela. Larraulgo Udalarari 128,00 euro suposatzen diolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2017 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 128,00 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2017ko Udal aurrekontuetako 422.431.40.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 128,00 euroko gastua onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

XIII.AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-ri 2016 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, XIII Klasikoa “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, emandako diru-laguntzen kitapena prestatu duela, Larraulgo Udalaren kasuan jarritako diru-kopurua 810,64 euro izan ziren.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak XIII. Klasikoak, “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, aurrekontuetako kitapena onesten da.


ZORTZIGARREN PUNTUA

XIV.AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-ri 2017 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoko Batzordeak, XIV. Aiztondo Klasikoaren “Patxi Alkorta memorialaren” aurrekontua bidali duela, guztira 15.167,97 eurotako dena, datorren martxoaren 5ean ospatuko dena. Larraulgo Udalarari 647,15 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Ikusirik 2017ko Udal aurrekontuetako 422.340.00.02 partidaren aurrekontu nahikoa aurrirakusten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 647,15 eurotako ekarpena burutzea, 2017 urteko Udal aurrekontuetako 422.340.00.02 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 647,15 eurotako gastua onestea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

LARRAULGO EKOMUSEOAREN 2016KO MEMORIAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, DINA 7 Kultur Elkarteak aurkeztu duela 2016an egindako ekintzen memoria eta "Linua Euskal Herrian, Linua Larraulen" eskuliburuaren 3 ale.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: DINA 7 Kultur Elkarteak aurkezturiko, 2016 urteko ekomuseoan egindako ekintzen memoria onestea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

LARRAULGO PARKE ZEHARRAREN ALDAMENEAN DAGOEN APARKALEKUAREN ALOKAIRU KONTRATUAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalerriko parke aldamenean dagoen aparkalekua, Usandizaga Ceberio familiaren jabetzakoa dena, herriko aparkaleku moduan erabiltzen dela eta jarduera horretarako beharrezkoa dela.


Ikusirik, alokairu kontratua bukatu dela eta beharrezkoa dela berri bat egitea.

Bertaratuek, gaia azterturik, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Usandizaga Ceberio familiarekin, parke aldamenean dagoen aparkalekua alokatzeko kontratua egitea, 2016 epealdian, 211,00 euroko alokairua ordaindu zen, eta urtero dagokion PFZ aplikaturik ematen duen diru kopurua ordainduz. Bost urteko iraupenarekin, hau da, 2017/01/01-2021/12/31.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Usandizaga Ceberio familiari ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA.- Alkatea baimentzea aipatutako kontratua sinatzeko.

HAMABIGARREN PUNTUA

UDAL ZINEGOTZIEN BIZITZA ASEGUROAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Udal Zinegotzien bizi aseguruaren prima oso altua dela, aseguratutako arrisku-estaldurak, heriotza eta ezintasunean 100.000,00 euro direlarik.

Ikusirik, 2015eko urriaren 1ean eginiko Udalbatzean, AXA Aseguru etxeari esleitu zitzaiola udal zinegotzien bizitza aseguruaren kontratazioa.

Ikusirik AXA Aseguru etxeari eskatu zaiola aurrekontu berri bat, Udal zinegotzen bizi aseguruarena, 50.000,00 eurotako arrisku-estaldurarekin.

Ikusirik AXA Aseguru etxeak aurkeztu duela eskatutako aurrekontua, guztira 2.541,45 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo zinegotzi eta Alkatearen bizi aseguroa AXA SEGUROS Aseguru etxeari esleitzea, bere zenbatekoa 2.541,45 euro direlarik, eta ondoren zehazten diren arrisku-estaldurak dituelarik:

-Heriotza: 50.000,00.-euro

-Ezintasuna: 50.000.-euro

BIGARRENA: Erabaki honen berri, AXA Aseguru etxeari ematea


HAMAHIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALETXEKO GALDARA ALDATZEKO AURREKONTUREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Udaletxeko berogailuen galdara aldatu egin behar dela konpenezinezko matxura bat duelako.

Ikusirik bi aurrekontu eskatu direla, TOVAR GOENAGA S.L. eta AMONARRIZ Iturgintza, S.L.-ri. Azken honek aurkeztutako aurrekontua delarik merkeena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udaletxeko berogailuen galdara aldatzeko AMONARRIZ Iturgintza, S.L.-ek aurkezturiko aurrekontua onestea, 1.734,70 eurotako diru-kopuruan.


BIGARRENA: 2.098,98 eurotako gastua onestea 2017 urteko Udal aurrekontuetako 623.920.00.02 partidaren kontura.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri TOVAR GOENAGA S.L. eta AMONARRIZ Iturgintza S.L.-ri ematea.

HAMALAU GARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KIROLZER	63,15
CRISTALARIA ALBISU	42,71
DIONISIO ORMAZABAL	236,85
AITZOL	56,84
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	293,10
EBA ERKIZIA BRION	709,54
TOLOMENDI	152,50
FERRETERIA BARBE	49,37
ZU ETA BIOK	808,92
MAPFRE	514,23
IZFE	20,45
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	934,95
SETALDE	82,43
NATURGAS ENERGIA	205,76
NATURGAS ENERGIA	388,69
IBERDROLA	205,78
IBERDROLA	358,49
IBERDROLA	33,41
IBERDROLA	246,28
IBERDROLA	74,63
IBERDROLA	107,94
MOVISTAR	18,15
MOVISTAR	48,40
MOVISTAR	63,85
MOVISTAR	133,01
MOVISTAR	18,79
MOVISTAR	18,15



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

MOVISTAR

50,89

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **5.937,26** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMABOSTGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMASEIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

16.1.LARRAULGO HERRITARRAK UDAL TALDEAK AURKEZTURIKO MOZIOAREN “TOLOSALDEKO GILTZARRIA” ONESPENA, HALA BADA


Larraulgo Herritarrak Udal Taldeak ondorengo mozioa aurkezten dute:

“Tolosaldeko Giltzarria herritar dinamika da, Tolosaldeko Gure Esku Dagoren enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkari bat. Martxoaren 19ko galdeketa antolatzea du xede, erabakitzeko eskubidea aldarrikatetik egikaritzera pasaz.

Eskualdeko herritar ororen bilgune izan nahi du Giltzarriak, erabakitzeko eskubidea, emaitzaren gainetik, gizarte kohesiorako dagoen tresna egokiena baita. Nolako Euskal Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, eskualdearen indarraz, eskualdeko biztanlearen iritzia babesaz.

Udal honek, herritarren ordezkari duen heinean, begi onez ikusten du Martxoaren 19ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzera, iritzia agertzera. Herri bat garelako, erabakitzeko eskubidea dugulako eta herritarron garaia delako.

Guztion partehartzea ezinbesteko baldintza da erabakitzeko ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Europar martxan dabilen trenak Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematera:

Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?

Irudikatu dezagun jende zoriontsua herri libre batean.

Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu! "

Aurkezturiko mozioa bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:

- Aldeko botoak: Urbietta, Leon, Jauregi, Sarria, Serrano eta Pizarro alkate-zinegotziak.
- Kontrako botoak: Asesio zinegotzia
- Abstentzioak: Ez daude

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengo absolutoz, Larraulgo Herritarrak Udal Taldeak aurkezturiko Tolosaldeko Giltzarria” mozioa bere osotasunean onesten du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA